

EUROPAKO BERRESKURATZE- FUNTSAK: ITXURAZKO ALDAKETA BERDE ETA DIGITALA

*Hego Euskal Herrian zertarako
erabiliko diren jakiteko
eskuliburua*





Diseinua, maketazioa eta ilustrazioak: Iñaki Landa

Itzulpena: Belaxe, Koop. E.

Lizentzia: Argitalpen honek Creative Commons lizentzia du: Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 3.0 Espainia.

Ikus lizentziaren kopia hemen: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es>

EUROPAKO BERRESKURATZE- FUNTSAK: ITXURAZKO ALDAKETA BERDE ETA DIGITALA

*Hego Euskal Herrian zertarako
erabiliko diren jakiteko eskuliburua*

AURKIBIDEA

Sarrera	6
1. Zer dira Europako berreskuratze-funtsak?	8
2. Zer baliabide ekonomiko aurreikusten dira	10
3. Egiazki, zer helburu dituzte?	15
4. Plana onartzeko eta betearazteko epeak	21
5. Kudeaketa- eta gobernantza-sistema	24
6. Funtsak eskuratzeko baldintzak	29
7. Zein dira, azken batean, onuradun nagusiak?	32
8. Nola eragingo dio gizartearen gehiengoari?	34
9. Zer trantsizio-eredu alternatibo bultza dezakegu?	40

SARRERA

Pandemiak are larriago bihurtu duen egungo krisi sakon honetan, berreskuratze-funtsak dira Europar Batasunaren erantzun nagusia. Eredu ekonomiko berdeago, digitalago eta erresilienteago baterako bidean laguntzea omen da funtsen egitekoa, hazkunde iraunkorra, kohesioa eta berdintasuna helburu direla.

Baina bertsio ofizial hori pitzatzen hasten da elementu hauek aztertu ahala: zer proiekturi eman zaien lehentasuna, zer eragile diren protagonistak, zer kudeaketa-eredu ari diren erabiltzen eta zer baldintza dakartzan berekin *Next Generation EU*k, berreskuratze-programaren ekimen aitzindariak. Ikuspegi objektiboago batetik begiratuta, Europako funtsak ez dira gure gaitz guztiak sendatuko dituen pagotxa, baizik eta gure kontinenteko enpresa handiak erreskatatzeko premiazko ahalegina, etortzear dugun kolapso ekologikoari, digitalizazioari eta AEBak eta Txina nagusi dituzten merkatu globaletara egokitze-ko beharrari aurre egiten laguntzeko sortua. Jakina, langileen interesen eta ongizatearen kontura egingo da hori guztia, ohi den bezala.

Beraz, zabaldu egin behar da politika zailantzarri horri buruzko eztabaida, hari so egongo baita datozen urteotako agenda. Eskubidea dugu informazioa jasotzeko, zer eredu ekonomiko nahi dugun eta zer neurri ezarri behar diren erabakitzeko, are gehiago egungo egoera erabakigarri honetan, non aldatzen ari baitira gure gizarteak euskarri dituen oinarriak. Zoritxarrez, gure erakundee-tatik jasotzen duguna ez dira eztabaida-

eremu burujabeak, baizik eta mezu sinplistik, ezkutukeria eta opakutasuna, demokrazia bahiturik daukaten bitartean.



Bidegabekeria horri erantzuteko gure ekarpen apala egitearren, eskuliburu hau argitaratzea erabaki du *Euskal Herriak Kapitalari Planto* plataformak. Hor daude jasota, ahalik eta modurik pedagogikoenean, Europako funtsei buruzko ohiko zalantzak. Espero dugu lagungarri izatea eskuliburua eztabaidaren egungo esparru urria zabaltzeko, eta elkarrengandik bereizteko programaren benetako izaera eta etengabe kontaktzen diguten istorio melenga. *Bederatzi galdera eta bederatzi erantzun* ditu eskuliburuak. Lehenbizi, Europako funtsen gaineko *funtsezko gakoak* azaltzen ditu: zer helburu dituzten, zenbateko finantzaketa behar duten, nola kudeatzen diren, zein diren haien onuradun nagusiak eta zer aldaketa dakarten berekin. Programaren ezaugarriak aurkeztu ondoren, eragin ditzakeen *inpaktuak* aztertuko ditugu eta, azkenik, zenbait *alternatiba* proposatuko. Gure iritzian, alternatibak bultzatu behar dira, betiko sistema bidegabekia eta jasanezina berdez, morez eta itxurazko elkarlanean margotu beharrean, eta irmoki bat egin bizimodua antolatzeko eredu bidezko eta jasangarri baterako trantsizioarekin.

Esan dezagun, bestalde, 2021eko maiatzaren 20an amaitu zela eskuliburu hau idazteko lana, zeina ez baita izan guk nahi genukeen bezain zeregin samurra. Prozesu osoan nabarmendu den gardentasunik eza «plan nazionalera» ere hedatu da. Plan horri dagokio azaltzea zer inbertsio eta aldaketa egin behar diren Espainiako Estatuan. Baina apirilaren 30ean aurkeztutako *Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia España puede* (Espainiak ahal du. Berreskuratze-, eraldatze- eta erresilientzia-plana) testuaren 2.052 orrialdeek ez dute zehazten ez proiekturik, ez baldintzarik; aitzitik, anbigutasunetik eta araubidetik nahiko eta sobera dute. Ziurgabetasun- eta opakutasun-giro horretan, Eusko Jaurlaritzak bere *Euskadi Next 21-26* plana aurkeztu zuen maiatzaren 18an, ustekabean aurkeztu ere. Espainiako gobernuari zenbait zifra eta lehenetsun aldatzeko eskatzen dio Jaurlaritzak plan horren bidez —eskimatikoki eta generikoki—, gizarteak prozesuan esku hartzeko inongo formularik aipatu gabe. Laburbilduz, ez du uzten prozesua osorik ikusten, tantaka argitaratzen baitu informazioa. Hala eta guztiz ere, funtsezkoa iruditzen zaigu Europako funtsei buruzko eztabaidarako eta gogoeta kritikorako txosten bat izatea Hego Euskal Herriko herritarrek.

1. ZER DIRA EUROPAKO BERRESKURATZE-FUNTSAK?

Jarduera-eremuak. Europar Batasunaren baliabide ekonomikoen injekzio-programa publikoa dira Europako funtsak, pandemiak are larriago bihurtu duen egungo krisi globalari aurre egiteko sortuak.

Bertsio ofizialak bi proposamen uztartzen ditu: alde batetik, *berreskuratzea*, COVID-19ak osasunean, gizartean eta ekonomian eragiten dituen kalte larrienei aurre egiteko; bestetik, Europako eredu ekonomikoa —erresilientzia eskasekoa— *eraldatzea*. Honenbestez, munduaren egungo egoerara *egokitzea* da kontua, hots, krisia, hondamen ekologikoa, digitalizazioa eta merkatu berde eta digital nagusien kontrola Txinaren eta Estatu Batuen mende dagoen testuingurura ohitzea.

Berreskuratzearen eta eraldatzearen arteko tentsioa gorabehera, erakundeek eraldatzeari ematen diote lehentasuna. Oso adierazgarria da, esate baterako, Eusko Jaurlaritzak dioena: «Europako funtsek eraldatzeari eta erresilientziari eman behar diotela lehentasuna. Haien bidez suspertuko da ekonomia, ez alderantziz». Lehentasuna duten proiektuak aztertzean (*3. galdera: Praktikan, zer helburu dituzte?*), berriz, ohartuko zarete eraldatzearen kontzeptuari ikuspegi oso zehatz batetik ekiten zaiola. Ikuspegi horrek ez du zalantzan jartzen, sendotu baizik, egungo eredu, zeinaren oinarriak hazkundera eta ahalik eta etekin handienak lortzea baitira, merkatu globalen eta enpresa transnazionalen protagonismoaz gain.



Faseak. Bi fasetan antolatu da Europako laguntza-programa:

- 2020ko martxoan hasi zen lehen-bizikoa, eta *epe laburreko larrialdi- eta erreskate-neurriak sustatu zituen*¹. «Langileen, estatuen eta enpresen aldeko ezkutu sozial hirukoitza martxan jartzea» helburu arranditsua aitzakia zela, masiboki injektatu zitzairen likidezia merkatuei, zor publikoa eta pribatua erosiz² eta enpresa handiei maileguak eta abalak emanez³. Hala-

1. Oso neurri esanguratsua, baina laguntza-programatik kanpo dagoena: *Hazkunde- eta egonkortasun-hitzarmena* aldi baterako eten izana. Hitzarmen horrek zehazten ditu herrialde bakoitzeko gehieneko defizit publikoa (% 3) eta zor publikoa (% 60). 2021era luzatu da etenaldia, eta baliteke 2022ra ere luzatzea eta 2023an martxan izatea berrituz. Ondorio larriak ekarriko ditu hitzarmenak, defizitaren eta zor publikoaren egungo mailak ikusirik (aipatutako baremoetatik oso goitik daude biak ere) austeritate-politikak ezarriko baititu seguruenik.

2. Europako Banku Zentralaren bidez (EBZ).

3. Espainiako Estatuan, Kreditu Ofizialeko Institutuaren bidez (ICO).

ber, munta txikiagoko gizarte-programa batzuk ere jarri ziren martxan, osasun-estaldurari eta aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientei laguntzeko.

- 2020ko uztailean abiatu zen bigarren fasea, eta bide osagarri bat jorratu zuen, *epe ertain eta luzera produkzio-egituraren eraldatze ekonomikoa* xede zuela. Lehenik eta behin, igo egin zen EBren urte anitzeko aurrekontua 2021-2027 eperako; bigarrenik, *Next Generation EU* (NGEU) ohiz kanpoko plana onartu zen, hots, egungo testuingurura egokitzeko trantsizio berde eta digitala baliatzeko EBren ekimen aitzindaria.


Next Generation EUren tresnak. Plan hori dugu programa osoaren ardatza. Programaren zazpi tresnetatik, *Berreskuratze- eta erresilientzia-mekanismoa*, BEM da aipagarriena, bai aurrekontuagatik —zenbateko osoaren (750.000 milioi) ia % 90—, bai trantsizio berde eta digitalarekiko zuzeneko loturagatik.

Berreskuratze- eta erresilientzia-mekanismoa (BEM)	Laguntza ekoizpenaren eraldatze berde eta digitalari
React EU	Laguntza europar herrialdeen kohesioari
Bidezko trantsiziorako funtsak	Laguntza klima-neutraltasunerako trantsizioari
Landa Garapenerako Programa (LGP)	Laguntza landa-eremuaren garapen orekatuari
Invest EU	Laguntza sektore estrategikoetako inbertsioei
Horizon EU	Laguntza ikerketari eta berrikuntzari
React EU	Laguntza babes zibilari eta arreta humanitarioari


Laburpena. Pandemiaren inpaktu nagusiei aurre egitea eta ekonomia suspertzea da Europako funtsen egitekoa, bereziki ekonomia eraldatzea eta egungo testuinguru larri eta nahasi honetara egokitzea. Bi fase ditu horretarako prestatu den programak, eta hiru tresna nagusi: larrialdi- eta erreskate-neurriak, 2021-2027 urte anitzeko aurrekontu-esparrua, eta *Next Generation EU* ohiz kanpoko plana. Azkena aipatu dugun horrek du programa osoaren pisu politiko eta ekonomiko nagusia, batez ere BEM tresnak.

2. ZER BALIABIDE EKONOMIKO AURREIKUSTEN DIRA?

Funtsen zenbatekoa. Orain arte esleitutako aurrekontua *3,25 bilioi eurokoa da*⁴. Zenbateko hori *grasso modo* banatuko bagenu lehentasuneko bi alorretan (ekonomia suspertzea eta eraldatzea), bigarren alorraren nagusitasuna (zenbateko osoaren % 88 inguru)⁵ utziko luke agerian emaitzak; gainerakoa (% 12), berriz, pandemiaren gizarte- eta osasun-inpaktu kaltegarrienei aurre egiteko erabiliko litzateke, lehenago ere azaldu dugun legez.



Zorra. 3,25 bilioi horietatik, % 14,56 bakarrik dira funts galdurako dirulaguntzak; gainerakoa (% 85,44), berriz, zorra sortzen duten maileguak eta abalak dira. Garrantzi handia du datu horrek, izugarria eta globala baita zor pribatuaren eta publikoaren arazoa, batez ere kontinentearen hegoaldeko herrialdeetan.




4. Honela lortu da zifra hori: lehenbiziko larrialdi- eta erreskate-fase osoa, NGEUaren funtsak eta 2021-2026 eperako EBren aurrekontua batuta. 2021-2027 epeko aurrekontu osoa programaren zatitzat hartuz gero, 4.124.000 eurokoa izango litzateke haren zenbatekoa. Alabaina, ez dugu zifra hori erreferentziatzat hartzen, iruditzen baitzaigu aurrekontuaren handitzea bakarrik bideratuko litzatekeela erronka berriei aurre egitera.

5. Gutxi gorabeherakoak dira atal honetako zifrak eta portzentajeak, eta tresnen helburu orokorretan daude oinarrituta, ez haien bidez sustatutako proiektuen behin betiko zehaztapenean, kontu hori oraindik argitaratu ez bada ere.

Next Generation EUren baliabideak. Funtsezko programa horretarako onartutako zenbatekoa 750.000 milioi eurokoa da; horietatik, 360.000 milioi zuzeneko dirulaguntzak dira (% 58,4), eta gainerako 312.500 milioiak (% 41,6), berriz, itzuli beharreko maileguak. Pandemiaren eraginaren arabera banatuko dira zenbateko horiek EBko herrialdeen artean, eta Italiak eta Espainiako Estatuak jasoko dute diru gehien (guztizkoaren % 20 inguru bakoitzak).

lkatzari, plastikoei, ekonomia digitalari eta abarri ezarriko zaizkien zerga berrien bidez ordainduko du EBk ohiz kanpoko ekimen hori, eta, batez ere, zor publiko mutualizatutako bonuak jaulkiz (bost eta 30 urtera bitartekoak), hau da, EBko estatu guztiak erantzukizun partekatua eta solidarioa dutela. Guztira, 800.000 milioi euro injektatuko dira finantza-merkatuetan, non produktu arrunta izango baitira, hots, interesen eta espekulazio-eragiketen kontrolik gabea, ahulezia muturrekoa dela. Finantzaketa-esparru horretan, gora egingo luke baita lehen aipatutako zor errearen porzentajeak ere, herrialdeek jasoko dituzten funts galdurako dirulaguntzak ere EB mailako jaulkipen masibo baten mende baitaude, azken batean.

NEXT GENERATION EU: 750.000 milioi €



BERRESKURATZE ETA ERRESILIENTZIA MEKANISMOA 672.500 milioi €

Espainiako Estatuari dagokionez, gutxieneko zenbatekoa ezarri du EBk (140.000 milioi), honela banatua: 72.000 milioi, zuzeneko laguntzetarako; 68.000 milioi, maileguetarako. Aurrerago ikusiko dugunez, Plan Nazionala da funtsak eskuratzeko tresna nagusia, zer proiektuk duten lehentasuna eta zer aldaketa egin behar diren zehazten duena. 2021eko apirilaren 30ean aurkeztu zuen Espai-

niako gobernuak bere Plana, [*España puede. Plan de recuperación, transformación y resiliencia izeneko*](#) (Espainiak ahal du. Berreskuratze-, eraldatze- eta erresilientzia-plana). Plan horrek banatuko ditu zuzeneko laguntzarako funtsak, parametro hauei jarraikiz:

INBERTSIOA ERAKARTZEKO HOGEI PROGRAMAK	milioi € 2021-23
1. Mugikortasun jasangarri, seguru eta konektaturako estrategia	13.203
2. Etxebizitzak birgaitzeko eta hiriak eraberritzeko programa	6.820
3. Administrazio publikoen modernizazioa	4.315
4. ETEak digitalizatzeko plana	4.066
5. 5Garen bide-orri	3.999
6. Espainia 2030 politika industrial berria eta Ekonomia Zirkularerako Estrategia	3.782
7. Gaitasun digitalen plan berria	3.593
8. Sektore turistikoaren modernizazioa eta integrazioa	3.400
9. Zientzia eta berrikuntzako sistema nazionalaren garapena	3.380
10. Energia berriztagarrien hedapena eta integrazioa	3.165
11. Zaintzaren ekonomia berria	2.492
12. Lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako politika publiko berriak	2.363
13. Itsasertzaren eta baliabide hidrikoen zaintza	2.091
14. Lanbide Heziketako plan estrategikoa	2.076
15. Hezkuntza Sistemaren modernizazioa eta digitalizazioa	1.648
16. Ekosistemen eta biodibertsitatearen zaintza eta leheneratzea	1.642
17. Hidrogeno berriztagarriaren bide-orria	1.555
18. Azpiegitura elektrikoak, sare adimendunak, biltegitratzea	1.365
19. Osasun Sistema berritzea eta modernizatzea	1.069
20. Adimen Artifizialari buruzko estrategia nazionala	500

Hego Euskal Herrirako funtsak. Ez dakigu zenbatekoa den Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) eta Nafarroako eragileentzako diru-kantitatea. Izan ere, plan nazionalen bitartez zentralizatzen dute estatuek funtsen kudeaketa-sistema, eta haiek erabakitzen dute zer proiektuk duten lehentasuna, lurraldekako kuotei jaramonik egin gabe. Espainiako Estatuak sektoreetako hogeit bat *adierazpen interesgarri* deitu ditu, eta autonomia-erkidegoetako lurralde-planak jaso. Horrez gain, ugazaba eta enpresa handientzako *informazio-leihatilak* jarri ditu martxan, proiektu horietarako baimena zuzenean negoziatzeko. Dena den, *España puede...* txostenak ez du argitzen funtsak zertarako erabiliko diren, zehazki, eta geroago egingo diren deialdien eta hartuko diren erabakien zain egon behar omen dugu.

Opakutasun- eta ziurgabetasun-egoera horretan, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak⁶ publikoki azaldu dituzte beren eskariak —Jaurlaritzak, [Euskadi Next 21-26 Planaren](#) bidez, zeina 2020ko abenduaren 29an aurkeztu eta 2021eko maiatzaren 18an eguneratu baitzen; Nafarroako Gobernuak, 2020ko urtarrilean argitaratutako lehentasunen bitartez—, eta Espainiako Gobernuari igorri dizkiote, BEM tresnaren lehentasun-aukeraketan azter daitezten. Hala, bada, [Nafarroak 1.534 milioi eskatu ditu 49 proiektutarako](#) (azpiegiturak eta herri jasangarriak); Euskadik, berriz, *277 proiektu aurkeztu ditu* (kostua, *18.286 milioi*). Europako funtsak ez ezik, baliabide publiko zein pribatu osagarriak ere sartzen dira zenbateko horretan. Jaurlaritzaren zenbatespenen arabera, NGEUK inbertsio horren guztiaren % 35 finantzatuko balu, *6.400 bat milioi eurokoa* litzateke zenbatekoa⁷.

Gogora dezagun, ordea, eskariez ari garela, ez konpromisoez. Hona eskuliburu hau amaitzerako jada esleituta zeuden zenbateko bakarrak: *React EU* tresnaren bidez Nafarroak eta EAEk, hurrenez hurren, jasoko dituzten *148 eta 426 milioiak*. Europako lurraldeen arteko kohesioa sustatzea da tresna horren egitekoa.

Azterketa konparatiboa. Zalantzarik gabe, diru-injekzio oso handia da Europako laguntza-programa, termino absolututan. Aldiz, zenbateko horiek ez dira hain izugarriak, baldin eta egungo krisi sakonari eta lortu nahi diren helburuen egiturazko izaerari erreparatzen badiegu. Adibide bat aipatzearren, Europako laguntzen zenbatekoa Estatu Batuek banatuko dituztenen oso azpitik gertzen da. Bidenen administrazio eratu berriak 4.15 bilioi dolarreko gastua aurreikusten du, zeinari aurreko presidenteak onartutako laguntzak gehitu behar baitzaizkio.


NGEU planari dagokionez, termino erlatibotan aztertuz gero, beste era batera ikusten dira Espainiako Estaturako dirulaguntzak (140.000 milioi; horietatik 72.000 milioi, dirulaguntzak). Zenbait kalkuluren arabera, Espainiako Estatuaren BPGa % 3 igoaraziko dute funtsek 2021-2026 epean, baina urtebetean bakarrik (2020an) % 11 jaitsi zen BPGa (123.074 milioi), eta zor publikoaren hazkundera 156.725 milioikoa izan zen.

Hego Euskal Herrian, berriz, 6.400 eta 1.534 milioi jasotzea espero dute, hurrenez hurren, EAEko eta Nafarroako gobernuek 2021-2026 eperako. Baina diru hori urtebeteren buruan eskuratuko lukete bi gobernuek, baldin eta gure fiskalitatea Europako batezbestekoaren parean jarriko balute: EAEn, 5.976 milioi euro gehiago jasoko litzuzke EAEk, eta Nafarroak, berriz, 2.005 bat milioi gehiago (2019ko datuak). Are zenbateko handiagoa jasoko litzateke kapitalaren [errendimenduaren gaineko zergak](#) (sozietateen gaineko zerga, adibidez) Europako batezbestekoarekin parekatuz gero. Zerga horren tributazio-tasak % 20 eta % 26 bitartekoak izan ohi dira, baina tasa erreala askoz txikiagoa

6. Nafarroak ez du aurkeztu berariazko planik Europako funtsak eskuratzeko, eta Reactivar Navarra - Nafarroa Suspertu 2020-2023 plana du lehentasunen oinarri. 2021-2026 epean egin beharreko 125 proiektu jasotzen ditu, guztiak ere trantsizioaren lehentasunen araberrakoak (berdeak, digitalak, sozialak eta lurraldekakoak). Plana martxan jarri gero, 3.400 milioi euroko inbertsioak sustatuko lirateke.

7. *Euskadi Next* planaren lehen bertsoak 200 proiektu jasotzen zituen, eta Europako funtsetatik 5.702 milioi euro jasotzeko aukera.

izaten da. Laburbilduz, Hego Euskal Herriko BPGaren [presio fiskala](#) Europar Batasuneko batezbestekoa baino 8,5 puntu txikiagoa da, estatistika konparatiboaren arabera.



Laburpena. Europako NGEU funts-programako (750.000 milioi euro) 3,25 mila milioi euroak diru-injekzio izugarria dira, lagungarria ekonomia eraldatzeko eta egokitzeko eta, neurri apalagoan, COVID-19aren ondorio kaltegarriari aurre egiteko. Den dela, ikusirik krisiaren larritasuna eta helburuen konplexutasuna eta garrantzia, erlatiboa da dirutza horren pisua. Gainera, mailaguen nagusitasunak ezegonkortasuna ekar lezake, eta austeritate-politiken areagotzea. Hego Euskal Herriari dagokionez, ez daukagu informazio argirik esleitutako baliabideen zenbatekoaz, prozesuaren ezkutukeria eta opakutasuna direla medio. Dena dela, React EUren bidez 574 milioi esleitu dira jada; Espainiako Gobernuari, berri, 7.934 milioi eskatu zaizkio (BEMk onartu behar du zenbatekoa). Seguru aski, tarte horren erdibidean geratuko dira behin betiko kopuruak.

3. EGIAZKI, ZER HELBURU DITUZTE?⁸

Xede ofizialak. Ñabardurak ñabardura, antzeko helburuak dituzte erakunde batzuek zein besteeek. Lehentasuna koronabirusaren eragin kaltegarriak leuntzeari ematen dion ikuspegi batetik abiatuta, Europako ekonomiak eta gizarteak jasangarriagoak eta erresilienteagoak izatea omen da helburua, trantsizio ekologikoak eta digitalak dakartzaten erronkei eta aukerei erantzuteko ahalik eta ondoena prestatuta egoteko. Bertsio ofizialaren arabera, hori litzateke biderik egokiena gizarte- eta lurralde-trantsizioan aurrera egiteko, printzipio hauei jarraikiz: berrikuntza, kohesioa, berdintasuna eta enplegu-duintasuna. Laburbilduz, *win-win* estrategia bat, non denak diren irabazle eta inor ere ez galtzaile.

Imajinario partekatu horretan, erakunde bakoitzak bere inbertsio eta aldaketa nagusiak zehazteari ekin dio: Espainiako Estatuak, *7 buques insignia* (UE), *10 palancas y 30 tipos de proyectos prioritarios* (Zazpi erronka nagusi (EB), 10 palanka eta lehentasuna duten 30 proiektu) EAEk, berriz, *8 componentes estratégicos* (Zortzi osagai estrategiko). Halaber, erreferentzia horiek trantsizio berde eta digitalaren aldeko aurrekontuak ekarri behar omen dituzte: funtsen % 37, gutxienez, klima-aldaketari aurre egiteko izango da, % 20 digitalizazioa sustatzeko eta % 10 biodibertsitatea bultzatzeko.

Gutxieneko adierazleak		
Klima% 37	Digitalizazioa % 20	Biodibertsitatea % 10
Flagships UE		
3, trantsizio energetikoa	3, digitalizazioa	1, lanbide-heziketa
España puede... planaren palankak		
Hiri- eta landa-agenda, eta despoblazioaren aurkako borroka	Zientziaren eta berrikuntzaren aldeko ituna, eta Osasun Sistema Nazionala sendotzea	
Azpiegitura eta ekosistema erresilienteak	Hezkuntza eta ezagutza, etengabeko prestakuntza eta gaitasunen garapena	
Trantsizio energetiko bidezko eta inklusiboa	Zaintzaren ekonomia berria eta enplegu-politikak	
XXI. menderako administrazioa	Kulturaren eta kirolaren industria sustatzea	
Gure enpresen ekosistema modernizatzea eta digitalizatzea	Zerga-sistema modernizatzea, hazkunde inklusiboa eta jasangarria lortzeko	
Euskadi Next planaren osagaiak		
Pertsonen osasuna eta zaintza	Bizitza osoan ikasten jarraitzea	
Energia berriztagarriak ekoiztea	Mugikortasuna jasangarria	
Administrazio, enpresa eta balio-kateak digitalizatzea eta berritzea	Hiri-habitata	
Habitat naturala eta hondamen naturalen prebentzioa	Ekonomia zirkularra	

8. Lehenbiziko bi galderetan, Europako laguntza-programa osoa aurkeztu dugu. Galdera honetatik aurrera, amaieraraino, ohiz kanpoko tresna gisa bakarrik aipatuko dugu *Next Generation EU* plana, Europa kapitalismo berde eta digitalera egokitze helburuari zuzenean lotua.

España puede, esate baterako, hau dio: funtsen % 40,29 trantsizio berdea eta ekologikoa sustatzeko erabiliko dela, eta teknologia zein azpiegitura berdean inbertsioak egiteko; % 29,58, berriz, eraldaketa digitalerako izango omen da. *Euskadi Next 21-26* Planak, berriz, beste hau dio: bere zortzi osagaietan jasotako inbertsioak guztiz bat datozela Europako eta Espainiako Estatuko parametroekin. Dena den, planak ez du zehazten aurrekontuaren zer portzentaje erabiliko den trantsizio berde eta digitalerako, ez baitu argitzen zer proiektu bultzatuko diren.

ESP. ESTATUKO EBEPE-A – <i>Euskadi Next</i> eko 29 proiektu	Inbertsioa, guztira
Automobilgintzaren industria berde eta konektatua	2.105,9 milioi euro
Hidrogeno berdearen bidezko energia-ekoizpena	1.410,4 milioi euro
Industria aeroespaziala	334,3 milioi euro
Nekazaritza jasangarria eta eraginkorra	483,3 milioi euro
Puntako osasun-sistema nazionala	750,9 milioi euro
ESP. ESTATUKO EBEPEa, guztira	5.084,8 milioi euro
ESKUALDEKO EBEPE-A – <i>Euskadi Next</i> eko 63 proiektu	Inbertsioa, guztira
Zahartzea, ongizatea eta erresilientzia	646,7 milioi euro
Banaketa-sare adimendunak	1.518,6 milioi euro
Itsas jatorriko energia berriztagarriak	272,8 milioi euro
Trebakuntza zientifikoa eta teknologikoa	380,6 milioi euro
Big Data – AA – Zibersegurtasuna	484,7 milioi euro
Euskadi sortzailea	108,7 milioi euro
Hiri jasangarriak	1.130,4 milioi euro
Klima-aldaketarekiko erresilientzia	383,4 milioi euro
Ekoberrikuntza eta ekonomia zirkularra	1.473,5 milioi euro
ESKUALDEKO EBEPE-AK, GUZTIRA	6.399,3 milioi euro
ESKUALDEKO EBEPE-A – <i>Euskadi Next</i> eko 185 proiektu	Inbertsioa, guztira
Pertsonen osasuna eta zaintza	284,5 milioi euro
Bizitza osoan ikasten jarraitzea	747,8 milioi euro
Energia berriztagarriak ekoiztea	699,8 milioi euro
Mugikortasuna jasangarria	1.391,4 milioi euro
Digitalizazioa eta berrikuntza	1.316,4 milioi euro
Hiri-habitata	1.306,5 milioi euro
Habitat naturala eta hondamen naturalen prebentzioa	976,2 milioi euro
Ekonomia zirkularra	79,9 milioi euro
DEIALDIAK ETA LIZITAZIOAK, GUZTIRA	6.802,5 milioi euro
EUSKADI NEXT 2.0, GUZTIRA	18.286,6 milioi euro

Baina *itxura berdeagoa eta digitalagoa* duten helburu partekatu horiek *bazterrera utzi dute pandemiaren egungo egoerak eta eredu hegemonikoak eragindako krisi sakonari buruzko ikaskuntza oro*. Zaintza, osasuna, habitata, mugikortasun jasangarria eta ekonomia zirkularra etengabe aipatzen dituzte, baina:

- Ez dira zalantzan jartzen *balio-kate globalak*, zeinak oso kalteberak baitira —hala frogatu du COVID-19ak— eta eraginkortasun oso eskasekoak ekologiaren aldetik.
- Ez da esplizituki aldarrikatzen *eremu publiko-komuna desagitea*, baina pribatuaren mende jartzea proposatzen da, sektore publikoaren eta pribatuaren arteko aliantza berrien bidez. Aurrerago arituko gara horretaz, funtsen protagonistak eta kudeaketa-sistemak aztertzean.
- Ez ditu irmoki *balioesten funtsezkoak direla erakutsi duten lanak*, zeinek prekarioak eta bigarren mailakoak izaten jarraitzen baitute.
- Ez du onartzen elkarri kontrajarriak direla *hazkunde ekonomikoa eta jasangarritasuna*, enplegu duina eta digitalizazioa, berdintasuna eta enpresa handiak are indartsuagoak izatea..., ezta berdetasunaren eta digitalizazioaren artean dagoen bistako lehia ere.

Laburbilduz, Europako funtsek babesten duten trantsizio-kontzeptuak ez du inolaz ere zalantzan jartzen krisira eraman gaituen eredia eta, gainera, sendotu egiten du, kutsu berdea eta digitala erantsita. Ezinbestekoa du kutsu berdea, klima-aldaketa eta materialen zein energia fosilaren agortzea direla medio; digitala, berriz, egungo eta geroko kapitalismoaren nortasun-ikurra dugu. Beraz, beharrak bultzatuta jo du sistemak bide horretatik, baina egungo krisia eragin duten arrazoiei heldu gabe eta ekonomia azaletik bakarrik aldatuz.


Helburu errealak. Oso desberdinak dira Europako funtsen helburuei buruzko ikuspegiak, bertsio ofizialek ekimen zehatzetara joz gero. Jakina, oso handia da finantzatu daitezkeen proiektuen kopurua, eta ikuspegi askotatik —baita antagonikoetatik ere— ekin dakieke. Aniztasun horrek, ordea, ez ditu lehentasunak ezkututzen; izan ere, proiektu estrategiko batzuek berenganatzen dute politikarien arreta eta aurrekontuaren zatirik handiena, eta horien arabera ezartzen dira programaren helburu errealak.

Europatik Euskal Herrira etorri zaizkigun proposamenak aztertuta, hiru multzo osagarri hauek erazten dute NGEUaren ardatz nagusia: ekonomia berde eta digital berriaren merkatu-hobi globalak atzitzea (energia, mugikortasuna, digitalizazioa, 5G eta abar); antzinako proiektu desarrollistak berriro sustatzea, kutsu berritzailez hornituta (azpiegiturak eta megaproiektuak); krisi larrian dauden sektoreetako enpresa handiak erreskatatzea eta suspertzea (automobilgintza, aeronautika, turismoa, eraikuntza eta abar).

NGEUAREN HELBURU ERREALAK



Ekonomia berde eta digital berriaren merkatu-hobi globalak



Proiektu desarrollistak, kutsu berritzailez hornituak



Krisi bereziki larria jasaten duten sektoreetako enpresa handiak erreskatatzea

Kontua, beraz, ez da ekonomia suspertzea bakarrik: maila globalean negozioa egitea da lehentasuna, eta bigarren mailakoa ongizate kolektiboa, baita sektore ustez soziale-tan ere (osasuna, zaintza eta ekonomia zirkularra, adibidez). Ekonomia eraldatzea ere ez da kontua, kapitalismoaren ezaugarriak ez baitira batere aldatzen. Krisian dauden eta aldatzen ari diren merkatu globaletara *egokitze*ko hil edo biziko prozesu baten aurrean gaude, non Europa Estatu Batuen eta Txinaren oso atzetik baitabil eta, gainera, mendekotasun handia baitauka atzerriko herrialdeekiko energiari eta materialei dagokienez.

Horregatik proposatu zuen Europak honako hau, pandemiaren aurretik: merkatu globalak atzitzeko ahalmena duten sektoreetan espezializatzeko lurralde bakoitza (espezializazio adimenduna). Proposamen horren jarraipena eta azelerazioa baino ez da NGEU plana. Eusko Jaurlaritzak *RIS3, Espezializazio adimenduneko estrategia*n jaso du egitasmo hori, zeinak munduko balio-kateetan txertatzeko bidean aurrera egiteko zazpi alor zehazten baititu. Berehala ohartuko zaretenez, *Euskadi Next 21-26* planaren lehen-tasunetan ere ikuspegi eta sektore berberak ageri dira, eta produktu gehienak alor horiei uztartzen zaizkie.

RIS3 estrategia berrikusia PCTI 2020en esparruan



* **Irudia:** *Euskadi Next. Euskadiren Susperraldirako eta Errezilientziarako Programa. 2021-2026. 2021eko maiatza.*

Lehentasunezko proiektu estrategikoetatik, nabarmentzekoa da **hidrogeno berdearen** balio-kate globaletan txertatzeko ahalegina (*BH2C, Hidrogenoaren euskal korridorea proiektua, 1.300 milioi eurokoa*); *IBERLYZER 80 (lau milioi)*; automobil elektrikoetarako **baterien** eskala-aldatzea —*Basquevolt Gigafactory (882 milioi)*; *Polo Mubil (156 milioi)*—; **digitalizazioa** —*Basque Digital Water (543 milioi)*; *Smart Food Country 4.0 (171 milioi)*, *Elektrizitatea banatzeko sareen eraldaketa digitala (489 milioi)*—; **proiektu eolikoak** —*Aixeindar, 2025erako Euskadin garapen eolikia bultzatzeko plana (270 milioi)*; *Energia berriztagarrien eta hidrogenoaren entsegu eta garapen teknologikorako itsasoko azpiegiturak (60 milioi)*, *Parke eoliko flotatzaileen sare industrial eta teknologikoa (40 milioi)*—; **osasun- eta zaintza-zerbitzu pribatuak** —*Isardnat (353,1 milioi)*, *Osasunberri (199 milioi)*, *Project GANTT (130 milioi)*, *Adinberri (105 milioi)*, *Etxetic (56,5 milioi)*—, Euskadiko **5G sarearen** hedapena (65 milioi) eta **berrikuntza-zentroen** ugaltzea, sektore publikoaren eta pribatuaren arteko aliantza dela medio —*Automobilgintzarako fabrikazio aurreratuko zentroa: 4.0 industria (30 milioi)*, *Araba Health Intelligence Center (75 milioi)*, *Nagusi Intelligence Center (17,4 milioi)*, *Intelligence Center (39,8 milioi)*, *Bizkaia Dorrea (39 milioi)*—.

Merkatu globaletan negozio-hobi berriak bilatzeaz gain, ikuspegi desarrollistarekin eta erreskaterearen premiarekin ere bat dator NGEUa, eta hala adierazten du sektore hauen birmoldaketak: **aeronautikoa** —*Propaero proiektua/propulsio aeronautikoa (190,4 milioi)*—, **agroindustria** —*Basordaseko ekoizpen akuikolako lurreko parkea (105 milioi)*— eta **azpiegiturak** —*lurzoru industrialala baliozkotzea, leheneratzeko eta proiektu estrategikoak kokatzeko (885 milioi euro)*—.

Euskadi Next 21-26 Planaren lehentasunak
Hidrogenoa
Automobil elektrikoetarako bateriak
Digitalizazioa
Energia eolikia
Osasun- eta zaintza-zerbitzu pribatuak
5G
Berrikuntza-zentroak
Aeronautika
Agroindustria
Azpiegiturak

Beraz, helburu nagusi hauek ditu NGEU Hego Euskal Herrirako (gure iritzian, ez dago alde handirik Nafarroarako eta EAerako ikuspegiaren artean): eraikuntzari eustea; enpresa handiei kapitalizazioa bermatzea batere seguruak ez diren sektoreetan (esate baterako, hidrogenoaren alorrean), inbertsio publiko handiak eginez; automobilgintzako eta gasaren zein petrolioaren sektoreetarako multinazionalen birmoldaketari laguntzea; irabazi-hobi berriak bilatzea zaintza- eta osasun-alorrean, *silver economy* deritzonaren eta antzeko ekimenen bidez, eta are gehiago erraztea megaprensa

digitalei datu publikoak zein pribatuak doan lagatzeko politika, adimen artifizialeko zerbitzu berrietarako lehengai gisa erabil ditzaten. Beraz, bertsio ofizialetik oso urruti dabil errealia.


Laburpena. Trantsizioaren bertsio ofizialari kontrajarririk, lehentasun zehatzek argi erakusten dute zein diren benetako helburuak: merkatu-hobiak balio-kate globaletan, batez ere ekonomia berde eta digital berrian, egungo krisi-testuinguruan Estatu Batuak eta Txina Europaren dezente aurretik direla. Negozioa eta enpresen irabaziak lehenesten dira, ez benetako trantsizio batek eskatuko lituzkeen aldaketak. Beraz, ekonomiaren eraldatzea baino gehiago beste zerbaitez datorkigu: beharrak hala aginduta lehentasunak aldatzen ari den kapitalismo batera egokitzeko ahalegina, baina sistemaren eredu baztertzaile, bidegabe eta jasangaitzari bere horretan eutsiz.

4. PLANA ONARTZEKO ETA BETEARAZTEKO EPEAK

NGEUren kronograma orokorra. Ziurgabetasun handia dago NGEU garatzeko faseen inguruan; izan ere, ohiz kanpokoa da plana, eta elkarlanean jardun behar dute Europako erakundeek eta EBko estatuak.

2020ko uztailaren 27an hasi zen planaren kronograma, Kontseilu Europarrak onartu ondoren. «27 plan nazionalak» aurkezteko azken eguna, berriz, 2021eko apirilaren 30a jarri zuten. MMRari⁹ dagozkion proposamenak ere plan horietan txertatu behar ziren.

Estatu bakoitzak funtsak kudeatzeko araudiak ere epe horretan onartu behar zituen (Espainiako Estatuak abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretua onartu zuen, baina haren behin betiko negoziazioa amaitzeko zegoen 2021eko apirilaren amaieran); halaber, herrialde bakoitzak zor mutualizatuarekiko konpromisoa adierazi behar zuen («EBren baliabide propioen gaineko erabakia», termino juridikotan). Zor horren bidez (800.000 mila milioi) finantzatzen da NGEU plana (EBn inoiz ikusi gabeko fenomeno), eta Espainiako Estatuak betea du jada konpromisoa.



Planak aurkeztu ondoren, Batzordeari aurkeztu zitzaizkion, hark egokitu zitzan NEGEuaren parametroetara eta EBko erakundeek 2019tik 2020rako *seihileko europarra*¹⁰ delakoan herrialde bakoitzerako onartutako gomendioetara. Erantzuteko gehieneko epea: bi hilabete. Batzordearekin negoziatu ondoren, Kontseilura eraman ziren plan-proposamenak, hilabete igaro baino lehen (2021eko uztaierako) behin betikoz onar zitzaizkien. Horretarako, gutxienez 15 herrialderen onspena behar zuen. Tarte horretan, litekeena da EBko estatuek *beto gurutzatuak* aurkeztea beste herrialde batzuen proiektuei eta, honenbestez, are gehiago moteltzea berez konplexua den eta eragile askoren adostasuna behar duen negoziazioa.

Handik aurrera, jada onspen ofiziala eskuraturik, ordainketa aurreratuari bidea libre utzi zitzaion (herrialdeko, % 13). 2021ean lehen ordainketak egiteko aukera ere ireki zen, betiere aurreikusitako kronograma betetzen baldin bada. Horretarako, prozesuak ez du gehiago luzatu behar eta 2021eko abenduaren 31a baino lehen hitzartu behar dira BEM dirulaguntza-lerroetako funts guztiak; maileguak hitzartzeko epea, berriz, 2023ra arte luza daiteke.

Nolanahi dela ere, 2026ko abendua baino lehen amaituta egon behar dute proiektu guztiak. Tarte horretan, planen bilakaeraren *jarraipena* egingo dute Europako erakundeek, estatuekin zuzeneko harremanean jardunez. Urtean bi ordainketa egitea aurreikusten da. Hori dela eta, taxonomia espezifiko bat garatuko du Europako Batzordeak, hau da, ingurumen-helburuei laguntzen dieten jarduera ekonomikoen sailkapen berri bat, *Kalterik ez egitea* printzipioari jarraikiz (*Do no harm*).


Beraz, badago kronograma bat, baina hiru elementu hauek atzeratu eta/edo aldatu egin dezakete: a) apirilaren 30ean, herrialde guztiak ez zituzten aurkeztuak beren planak; b) data horretarako, herrialde batzuek artean onartzeke zeukatzen *EBren baliabide propioen erabilera*; eta c) ikusteko dago zer tankera eta erritmo izango duten negoziazioek, zeinek gehiengoaren babesa behar baitute eta beto gurutzatuen mehatxupean baitaude. Honenbestez, litekeena da prozesua atzeratzea.

Prozesua, Hego Euskal Herrian. Hona lehenbiziko ekitaldi aipagarria: 2020ko abenduaren 28an, *Euskal Herriak Kapitalari Planto* plataformak "[Aldaketa sakona euskal eredu ekonomikoan](#)" agiria aurkeztu zuen. Aldez aurretik, Europaren finantzaketa jaso behar duten lehentasunezko proiektuen lehen proposamena aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzak. PriceWaterhouse Coopers (PwC) enpresa transnazionalarekin batera prestatu zuen txostena Jaurlaritzak, eta hain zen eskandalagarria (enpresa handien interesekin bat egiteagatik, kutsu bizkaitarragatik, eztabaida sozial eta politikorik ezagatik, edukien maila eskasagatik...), ezen beste bertsio bat —landuagoa— aurkeztu behar izan baitzuen 2020ko abenduaren 29an. *Euskadi Next 21-26* —, non 200 proiektu lehenesten baitzi-

10. Batzordeak eta Kontseiluak EBko herrialde bakoitzaren aurrekontuak eta egoera ekonomikoa ikuskatzeko sistema bat da Europako Seihilekoa deritzona. Helburua: EBren itun eta hitzarmenetara egokitzea aurrekontuak eta egoera ekonomikoa. «Gomendio» deitzen zaie eskatzen diren aldaketei (neoliberal kutsukoak guztiak ere), baina, egiazki, betekizunak dira, are gehiago tartean ohiz kanpoko funtsak dabilzan honetan.

ren (16, estrategikoak), zortzi irizpideren arabera. Horiek erreferentzia harturik, 277 proiektu ditu egungo bertsio eguneratuak, 2021eko maiatzaren 18koak.

Nafarroako Gobernuak, berriz, ez du argitaratu berriazko planik: *Nafarroa Susperitu 2020-2023* plan estrategikoaren arabera zenbait lehentasun —azpiegituren eta herri jasangarrien gaine-koak— aurkeztu zituen 2021eko urtarrilean, eta besterik ez. Hala ere, ahaleginak egin ditu azpiegi-turak zehazten eta Europako funtsak jasotzeko arau juridikoak egokitzen, eta horren emaitza dugu 2021eko apirilaren 14ko dekretua.




Nabarmena izan da prozesu bietan eztabaida sozial eta politikorik eza; aitzitik, enpresa handiekin, aholkularitza-bulegoekin eta ugazaben erakundeekin gogotik hitz egin da. Are larriagoa da jokabi-de hori ikusirik NGEUak daukan garrantzia Hego Euskal Herriaren eredu ekonomikoa erabakitzeko. Hona prozesuen beste ezaugarrietako bat: ezkutukeria *España puede...* planean lehentasunezko proiektuak nola txertatu erabakitzeko Espainiako gobernuarekiko negoziazioetan. Gobernu horrek erabakitzen du, izan ere, zer proposamen eta aldaketa aurkeztu Europako erakundeetan.

Laburpena. 2021ean hasten da NGEUa onartu eta betearazteko eta haren jarraipena egiteko epea, eta 2026ra arte luzatuko da; 2023rako, berriz, funts guztiak esleituta egon behar dute. Litekeena da atzerapenak egotea, ohiz kanpoko baita programa. Hego Euskal Herriko krono-logiari dagokionez, hauek izan dira orain arteko urratsak: lehentasunezko proiektuak aurkeztea (batzuk, nahiko landuak; beste batzuk, ez hainbeste) eta funtsak jasotzeko baldintzak eta egi-turak prestatzea, betiere opakutasuna eta ezkutukeria nagusi zirela Espainiako gobernuarekiko negoziazioetan.

5. KUDEAKETA- ETA GOBERNANTZA- SISTEMA

Eragileak: Europako erakundeak, estatuak, enpresa handiak. *Bertikalismoa* du ezaugarri nagusietakoa NGEUaren kudeaketak. Europako Batzordeak eta Kontseiluak erabakitzen dute zertarako — nagusiki—erabili behar diren funtsak; bestalde, azken hitza dute erabakirik garrantzitsuenetan, eta beren gain hartzen dute esleitutako proiektuen eta funtsen jarraipena, ordainketa eta ebaluazioa. Estatuak, berriz, dagokien herrialde-eremura egokitzen dituzte planaren xehetasunak, alorren eta proiektuen lehentasunak zentralizatzen dituzte beren plan nazionalan, eurek bakarrik negoziatzen dute EBko erakundeekin, eta baliabideen administrazioa eta justifikazioa zentralizatzen.

Estatuz azpiko erakundeak, bestalde, esku-hartze eskasa dute prozesu horretan eta, ahal duten neurrian, estatu zentraletan eragiten saiatzen dira, beren proiektu nagusiak txerta ditzaten. Horixe da, hain zuzen, Hego Euskal Herriko bi gobernuak funtsean egin dutena.



Enpresa transnazionalak, aitzitik, biziki esku hartzen dute prozesuaren maila guztietan — planaren ikuspegia zehaztetik hura betearazi arterainokoetan—, ongi koipeztatutako *lobby*-politikari esker. Arrakasta izan du haien ahaleginak, eta hau guztia lortu dute: NGEUaren oinarriko parametroak zehaztea, euren proiektuak posizionatzea, erakundeekiko kanalak ezartzea — zuzenekoak zein opakak («leihatila informalak» deritzenak)—, ekimen estrategikoei dagokien kontratazio publikoko araudia malgutzera..., baita proiektuen deialdiak eta jarraipena kudeatzea ere. Eskuliburu honetako zazpigarren galderan sakonago jorratuko dugu gai hori.

Tresnak: plan nazionalak, sektore publikoaren eta pribatuaren arteko aliantzak, EBEPEa eta desarautzea. Europako erakundearen eta estatuaren nagusitasunari jarraikiz, *plan nazionalen* inguruko negoziazioa da NGEUaren kudeaketa-ereduaren tresna nagusia. Planek bat etorri behar dute bertso eta helburu ofizialekin, esleitutako aurrekontuekin eta Europako seihilekoaren gomendioekin, funtsak eskuratzeko aukera ematen duten proiektuak eta aldaketak aurkezteko. *España puede...* planak 212 neurri proposatzen ditu (110 inbertsio eta 102 aldaketa), nahiko modu lausoan oraingoz, bere hamar palankak, lehentasunezko proiektuen 30 tipologia eta 20 aurrekontu-lerroak erreferentziatzen harturik.



Plan nazionalak ardatz dituen esparru horretan, *aliantza publiko-pribatuak* (APPak) jo ditu Europako Batzordeak lehenetsunezko diseinu-formulatzat, Europako Kontuen Auzitegiak txosten batean jasoak dituen arren aliantza horien ondorio kaltegarriak (gainkostuak, ustelkeria, kontrolik eza eta abar). Honenbestez, inbertsio publikoa izaki planaren baliabide nagusia, guztion diruaren kontura onartuko dira arriskuak, sozializatuko dira galerak inbertsioak porrot egiten badu, eta privatizatuko dira irabaziak, halakorik balego.

Espainiako Estatuak abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez

garatu eta zehaztu du aplikatu beharreko APP formatua, eta *ekonomia eraldatzeko eta suspertzeko proiektu estrategikoak* (EBEPEak) sortu ditu. Oraindik ez da eztabaidatu parlamentuan aipatutako legea. «Lehentasun handiko proiektuak dira, balio-kate osoari eragiten diotenak, puntako teknologia erabiltzen dutenak, bereziki konplexuak edo merkatu-gabezia nabarmenak, azpikontratazio-maila handia edo sektore pribatuaren inbertsio-gaitasun eskasa dutenak». Laburbilduz, *España puede...* planaren ardatzak eta ezaugarri bereizgarriak dira, aurrekontuaren zatirik handiena jaten dutenak, eta zuzeneko lotura daukate kapitalismo berde eta digitalera egokitzeko eta hura sendotzeko helburuekin.

Hain dira garrantzitsuak EBEPE horiek, ezen figura juridiko berriak sortu baitira haiek garatzeko eta desarautu egin baita kontratazio publikorako araudia. *Ekonomia mistoko sozietateen* bitartez antolatuko dira EBEPEak; partaidetza publikoa gutxienez % 51koa izango da, eta multinazionalak izango dira protagonista. Horren osagarri, berriz, funtsen zenbateko osoaren % 90eraino aurreratzeko aukera egongo da (ohiko proiektuetan ez bezala) eta, batez ere, hankaz gora geratuko da enpresentzako laguntzei buruzko Europako legeria (korporazio handiei bidea erraztearren); aitzitik, baliogabetu egingo dira lehenetsitako proiektuak garatzeko bidean emandako aurrerapauso bakanak (kaudimenaren bermeak eta baldintzak, baimenak, kontratazio publikoaren ingurumen-inpaktua), Espainiako Estatu Kontseiluak berak aitortzen duenez.


Orain arte, sei EBEPE tipologia onartu ditu Espainiako Gobernuak, eta beste lau zehazteke daude. Onespen horrek berretsi egiten du bi gai hauei buruz dugun iritzia: erakunde batzuen eta besteen lehentasunen arteko antzekotasuna, eta NGEUaren egiazko helburuak.

España puederen EBEPE tipologiak
Automobilgintzaren industria berde eta konektatua
Hidrogeno berdearen bidezko energia-ekoizpena
Industria aeroespaziala
Nekazaritza jasangarria eta eraginkorra
Puntako osasun-sistema nazionala garatzea
Gaztelaniaren erabilera adimen artifizialaren alorrean

EBEPEez gain, badago *bigarren mailako* proiektuen zerrenda bat ere (garrantzi eta zenbateko erlatibo txikiagokoak), NGEUaren oinarritzko parametroekin eta haietatik eratoritzen diren *España puede* eta *Euskadi Next 21-26*rekin bat datozenak. Zenbait deialdi eta lizitazioen bidez esleitzen dira proiektu horiek, bai eta erosketa publikoko ohiko bideetatik ere.

Dena dela, maiatzaren 20an artean erabat zehaztu gabe zegoen kudeaketa-sistema. Gure ustean, aipatutako proiektu nagusiek indarrean jarraituko dute, eta Europako Kontseiluaren onespena jasoko, baina gizartearen eta alderdi politikoen zenbait zuzenketak agian aldarazi egin dezakete aplikatzen den azken formatua.

Eusko Jaurlaritzak, esate baterako, hau iradoki dio Espainiako Gobernuari: EBEPE kategoria gehiago jartzeko, eskualde mailakoak sortuz, hartara hobeto aprobetxatzeko autonomia-erkidegoen indarguneak, lidergo-ahalmena eta aurrekontuak. Lau kategoria hauetan sailkatu ditu *Euskadi Next 21-26*k bere lehentasunezko proiektuak: estatu mailako EBEPEak (Espainiako Gobernuak hautatutakoetatik, bost lehenbizikoak), eskualdeetako EBEPEak (berriak; EAeri dagokionez, RIS 3 espezializazio adimenduneko estrategiari lotuak), bultzatzen diren deialdietan parte harrarazteko proiektuak eta, azkenik, erosketa publikoko lizitazioak eta prozesuak.



Gobernantza Eragile instituzional hauen artean erabakitzen da gobernantza-eremu nagusia: alde batetik, Europako Batzordea; bestetik, EBko estatuak. Eremu horretan negoziatzen dira proiektuak eta erreformak, eta egiten da planaren jarraipen zentralizatua. Honenbestez, funtsen kudeaketa Espainiako Estatuko eskala anitzeko eskumen-ahalmenarekin bat zehaztearren, 36/2020 Errege Lege Dekretuak gobernantza-egitura berri bat garatu du:

Ministerio arteko batzordea eta batzorde teknikoa	Gobernuko presidentea du buru, eta organo erabakitzaile gorena da. Goi-funtzionarioz osatutako batzorde tekniko baten aholkularitza jasotzen du, baina litekeena da sektore pribatuko jendea ere biltzea batzordera.
Goi-mailako foro sektorialak	Gune horietan, enpresak kontsultatzen ditu administrazioak, edo haien aholkularitza jasotzen, bere planak eta proiektuak prestatu eta ebaluatzeko.
Autonomia-erkidegoekiko konferentzia sektoriala	Ogasun-ministroak antolatutako foroa, autonomia-erkidegoetako ordezkariak biltzen dituen, funtsak lurraldeka nola esleitu erabakitzeko sortua.
Partaidetza-foroa	Foro horren bidez banatzen die informazioa gobernuak patronalaren erakundeei (CEOeri, besteak beste) eta bi sindikatu nagusiei (UGTri eta CCOOri).
Ogasun Ministerioko zuzendaritza-zentroa, Europako funtsen alorrean eskumenak dituen	Egun, Ogasun Ministerioko Funtsen Zuzendaritza Nagusia: NGEUaren kontuez eta kontrolaz arduratzen da, eta haien berri ematen die Europako erakundeei.

Gizartearen partaidetzari dagokionez, Espainiako Estatuko sindikatu nagusiek bakarrik esku hartzen dute. Estaturaz azpiko entitateek, berriz, konferentzia sektorial bat egingo dute (informazioa jasotzeko, batik bat). Aitzitik, enpresa transnazionalak gune formal eta informal ugari dituzte eztabaidarako, baita erabakiak hartzeko ere.

Hego Euskal Herrian, EAEko gobernuak egokitu egin du bere egitura instituzionala Europako funtsak kudeatzeko. Erantzukizunaren zati bat Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari egokituko zaio, haren mendekoak baitira Europako arazoetarako zuzendaritzak eta Euskadiren EBko ordezkariak. Alabaina, ["Ekonomia eta Ogasun Sailak berariazko sailburuordetza"](#) bat sortu du, Ekonomia eta Europako Funtsetako Sailburuordetza.

Euskadi Next 21-26 planaren lehen bertsioan, gobernantza-ereduaren zentralismo nabarmena murrizteko eskatu zuen Urkulluren gobernuak, eta NGEUaren kudeaketan Eusko Jaurlaritza eta foru-aldundiak «bitarteko organismo» gisa baliatzeko, hau da, planaren zuzeneko eragile modura. Ez dirudi eskari hori onartu denik, oraingoz behintzat.


Dena den, ez da eskatu estatu mailako partaidetza eta gobernantza-eskumena EAera hedatzeko. Beraz, ez da bultzatu gizarteak eta herritarrek eztabaidatzeko inolako gunerik, eta udalen eginkizun bakarra hau izango da: iristen diren deialdien berri ematea.

Antzeko irizpideak erabili dituzte Nafarroan ere, non hau besterik ez baitute egin: *Next Generation Bulegoa* deritzona sortu dute, Ekonomia eta Ogasun Sailaren barruan, NGEUa indarrean den bitartean funtsak kudeatzeko.

Laburpena. Enpresa transnazionalen beharren neurrira dago antolatuta NGEUaren kudeaketa-eta gobernantza-eredua: goitik beherakoa, zentralista eta partaidetza urrikoa. Etengabea izan da enpresa horien esku-hartzea prozesu osoan. Sektore publikoaren eta pribatuaren arteko aliantzak, nazioarteko merkatu-hobietara iristeko megaproiektuak eta kontratazio publikoaren desarautzea ditu ezaugarri nagusiak ereduak, *plan nazionalarekiko* mendekotasunaz gain. Gizartearen partaidetza, berriz, hutsaren parekoa da maila guztietan. Euskal erakundeek gobernantza partekatuko formulak eskatzen dituzte prozesuaren zentralismoa leuntzearen, baina esplizituki eusten diote ereduari (korporatiboa, partaidetzaren aurkakoa eta opakua) EAEko lurralde historikoetan.

6. FUNTSAK ESKURATZEKO BALDINTZAK

Baldintzak. Bistakoa da Europako funtsak eskuratzeko baldintza batzuk daudela, erakunde ofizialek ahaleginak egiten badituzte ere haien zehaztapena ezkutatu eta atzeratzeko. Kontua da, besteak beste, Europako herritar guztiok ordainduko dugula kontinenteko enpresa transnazionalen berrikuntza-proiektuen parte handi bat. Horrez gain, diru-injekzio horren bi baldintzek (*zorra eta aldaketak*) eragin kaltegarria izango du gizartearen gehiengoan, are gehiago urratuko ditu eskubide kolektiboak, eta are sakonagoa egingo langileriaren gizarte- eta bizi-erreproduktzioa krisia.



Zorra. Joan den mendeko 1970eko hamarkadan hasi zen uhin luzeko krisiak ekonomiaren finantziarizazioa dugu gaur egungo kapitalismoaren ezaugarri nagusietakoa. Beraz, zor publikoa eta pribatua dira egungo arazo handienetakoa. [Nazioarteko Finantza Institutuaren](#) 2020rako aurreikuspenek ziotenez, BPGaren % 365 da zorraren zenbateko orokorra. Honenbestez, ziurgabetasun- eta ahulezia-eragile izugarria dugu zorra, handia eta erregulaziorik gabea baita, 2008an ongi asko ikusi genuenez.

Pandemiak, berriz, zorpetuarazi egiten ditu estatuak eta erakunde publikoak, batez ere okerren dauden herrialdeetakoak. Eta Europako laguntza-politikak are gehiago okertzen du egoera. Likidezia-injekzio masiboak egitea zor burujabearen erasoak saihesteko eta enpresa handiak erreskatatzeko, hori izan da (eta da) Europaren jokabide nagusia. Beraz, maileguak eta abalak dira programaren alderdi nagusia, eta % 85,44raino iristen dira (NGEUn, % 41,60ra). Hori dela eta, areagotu egiten da espekulazio-burbuila European eta mundu osoan, eta zenbait estatuko egoerak okerrera

egiten du; esate baterakoa, Espainiako Estatuak, non defizit-tasa % 10,97 baitzen 2020an; zor publikoa, berriz, BPGaren % 117,1. Jakina, handitu egingo dira zifra horiek; ekonomiaren hazkunde- eta berreskuratze-aurreikuspen urriak, berriz, etengabe ari dira atzeratzen.

Honenbestez, «ekaitz perfektu» bat ari da prestatzen: alde batetik, zor publikoa tasa jasanezinetara ari da iristen (zor publikoa, baina baita pribatua ere); bestetik, 2022an edo 2023an Egonkortasun eta Hazkunde Hitzarmena aldi baterako bertan behera uztea. Defizitari % 3aren azpitik eustera behar-tzen ditu estatuak hitzarmen horrek, eta zor publikoak % 60 ez gainditzera. Baina, nola lortu zirku-luaren koadratura? Bi bide bakarrik daude: hazkunde ekonomiko esponenziala (inondik ere aurrei-kusten ez dena, ez baitago baldintza egokirik produktibitate-, inbertsio-, enplegu- eta kontsumo-uhin hedakor orokorrik sortzeko) edo —litekeenagoa— austeritate-politika zorrotzak aplikatzea.

Aldaketak. Opakutasuna izan da Europako laguntza-programaren ezaugarri nagusietakoa, maila guztietan, eta laguntzak eskuratzeko aldatetetan jotzen du goia. *España puedek* 102 aldaketa jasotzen ditu, baina ez dakigu ez zertarako diren, ez zer proposatzen den zehazki, ez noiz aplikatu behar diren;¹¹ ez, behintzat, garrantzi handienekoak; besteak beste, *lan-, zerga- eta pentsio-erreformak*.

Europako *seihilekoaren* berariazko «gomendioak» dira hiru aldaketa horiek, eta ezinbesteko baldintza da hirurak aplikatzea funtsak eskuratzeko. Europako Batzordea eta Kontseilua, berriz, argi mintzo dira horretaz: malgutasuna aplikatu behar da lan-merkatuan, bikoiztasuna ezabatzeko; egungo pentsio-sistema ez da jasangarria; areagotu egin behar da zerga-presioa, defizita murrizteko. Noski, azken hiru hamarkadetan EBren proiektuan hain sakon txertatu den dogma neoliberala aintzat hartuta egin behar da hori guztia.

Hartara, eta alde batera utzirik *España puederen* anbiguotasuna, Espainiako Estatuan kapitalismoa ekonomia berde eta digital batera egokitzearen truke neurri hauek hartuko dira, seguruenik:

11. Hori dela eta, aldatetak aplikatzeko epeen gainean negoziatutakoa argitaratzeko eskatu dio Europako Batzordeak Espainiako Estatuari: <https://www.lavozdeg Galicia.es/noticia/economia/2021/05/03/bruselas-alienta-fuertemente-gobierno-espanol-revelar-calendario-reformas/00031620057853939878951.htm>

Lan-erreforma
<ul style="list-style-type: none">• 2012ko lan-erreforma ez indargabetzea• Kontratu-motak sinplifikatzea• Malgutasun-neurriak lan-alorrerako• Azpikontratazioa arautzea• Lan-politikak zentralizatzea
Pentsioen erreforma
<ul style="list-style-type: none">• 25 urtetik 35era igotzea pentsioen zenbatekoa kalkulatzeko epea• Garaiz aurreko erretiroak zigortzea• Autonomoek Gizarte Segurantzaren kotizatze sistema berria• Pentsioen sistema osagarriak sustatzea• Kotizaziopeko laguntzaren finantzaketa-iturriak bereiztea
Erreforma fiskala
<ul style="list-style-type: none">• Trantsizio ekologikoari laguntzen dioten neurri fiskalak• BEZaren tasa murriztuaren eta supermurriztuaren erabilera mugatzea• Zerga-sabuespen, -kenkari eta -hobariak berrikustea• Ordainketa orokorra autobia-sarean

Hemengo eskumen-sistema dela eta, Hego Euskal Herrian zuzenean aplikatuko dira erreforma horiek, dagokien epean eta azkenean hartzen duten formari jarraikiz, zuzeneko zergapetze-kasuetan izan ezik, hots, Kontzertu Ekonomikoaren alorreko negoziatioetan.

Laburpena. Europako, Espainiako eta Euskal Herriko enpresa transnazionalen alde kapitalismo berde eta digitalean merkatu-hobi berriak atzitzearen ifrentzua, berriz, hau dugu: eskubide kolektiboen murrizketa esplizitua, eta austeritate-politikak areagotzea epe ertain eta luzera. Argi asko zehazten du proiektu estrategikoetarako inbertsio-programa sektore publikoaren eta pribatuaren arteko aliantzei buruzko esarak («galerak, sozializatu; irabaziak, pribatizatu»). Bada, areagotu egiten da ikuspegi hori Europako laguntza-programan, zeinak austeritatea eta zenbait erreforma (fiskala, laborala, pentsioena) aurreikusten baititu, guztiak ere irizpide neoliberalen arabekoak.

7. ZEIN DIRA, AZKEN BATEAN, ONURADUN NAGUSIAK?

Protagonistak. Zalantzarik gabe, enpresa transnazionalak, haiei atxikitako start-upak, ugazaben elkarrekin eta aholkularitza-bulego handiak dira —erakundeekin batera— Europako laguntza-programaren protagonistak, prozesuaren hasieratik. Etengabe eta irmoki jardun dira guztiak —gutxi asko esplizituki— lehentasunak zehazten dituzten planak prestatzen, kudeaketa- eta gobernantza-sistema antolatzen..., baita etorkizuneko laguntzak eta deialdiak zuzenean esleitzen ere. Laburbilduz, haien interesen arabera dago antolatua programa osoa.

Planen prestaketa eta lehentasunen hautaketa. Jo eta su ari da lanean enpresa handien eta ugazaben elkarrekin lobby korporatiboa sasoi kritiko honetan, erakunde publikoei presioa egiten lehentasuneko inbertsioak eta erreformak euren agendetara eraman ditzaten. Horretan ari dira zenbait europar plataforma —Industriarako Europar Mahaia (ERT, ingelesez) edo Hidrogeno Garbiaren Europar Aliantza (ITLC), besteak beste— eta Espainiako patronala, zeinak *leihatila informal* eta opaku bat ireki baitzuen, gobernuarekin batera, enpresa handiek eta ertainek proposamenak aurkez zituzten, hain deserosoak eta gardenak diren izapide publikoak egin gabe. EAEn, berriz, aholkularitza-enpresa batek (PWC) egin du lehen proposamena. Nolanahi dela ere, nabarmena da EAEn eta Nafarroan korporazio handien presioa eta erakunde publikoekiko duten hurbiltasuna eta lotura estua, masiboa baita haien presentzia Estatuari aurkeztutako lehentasunetan.

Korporazioen proposamenak eta eskaerak. Ez dakigu zenbateko diru-kopuruak eskatu dituzten multinazionalak; hala eta guztiz ere, argitaratu diren datu batzuek ondo erakusten dute nolako garrantzia ematen dioten laguntza publikoari, ekonomia berde eta digitalera egokitzeko estrategiaren aldekoari. [IBEX-35](#)ak, adibidez, 120.000 milioi eurotik oso gorako proiektuak aurkeztu ditu, antza denez. Iberdrolak 30.000 milioi euroko ekimenak bultzatu nahi ditu; [Endesak](#), berriz, 23.000 milioiokoak. Aurrekontu osoez ari gara, non funtsei egindako eskariak eta enpresak egingo duen inbertsioaren zenbatespena sartzen baitira; dena dela, erabilgarri dagoen aurrekontuaren zatirik handiena eskura dezakete proposamen horiek. Bestalde, aurrekontu osoaren % 62,80 jaten dute Espainiako Estatuko bost EBPEetako eta *Euskadi Next 21-26*ko bederatzietako proiektu-proposamenek, zeinetatik gehienak multinazionalen eta start-upen bidez aurkeztu baitira. Horrek ez du esan nahi, noski, aipatutako bi enpresa-mota horiek ez daukatela aukerarik aurrekontuaren gainerako portzentajetik ere dirua eskuratzeko lizitazio, deialdi eta erosketa publiko prozesuen bitartez.

Neurrira egindako kudeaketa- eta gobernantza-sistema. Enpresa transnazionalak beren irizpideak ezartzeko duten ahalmenaren adierazgarri da sektore publikoaren eta pribatuaren arteko aliantzen eta EBPEen aldeko jarrera. Horren adibide dugu honako informazio hau: dirudienez, CEOek zuzenean esku hartu du 36/2020 Errege Lege Dekretuaren prestakuntzan. Kudeaketa- eta gobernantza-prozesuaren funtsezko oinarria da aipatutako Dekretua. Ez da harrizkoa izango,

beraz, enpresa handietako ordezkariak ikustea erabakigune nagusietan, ez eta ere enpresa horiek zuzenean esku hartzea proiektuak gauzatzeko, baita EBEPEez harago ere.

Espainiako Estatuan diharduten aholkularitza-enpresa nagusiek ere funtsezko esku-hartzea izan dute leihatila informalak garatzen, baita ministerioek sustatutako *interes-adierazpenetarako* baremazio-irizpideak prestatzen ere. PriceWaterhouseCoopers, Ernest&Young, Deloitte eta KPMG dira Espainiako aholkularitza-bulego nagusiak, eta *big four* deritze (lau handiak). Bestalde, oso litekeena da etorkizuneko deialdietan ere aholkularitza- eta iragazki-lanak egiten jarraitzea bulego horiek, nahiz eta [kartel gisa jardun](#) direla egiaztatu (aurrez hitzartutako kontratuak esleitu zituzten Euskadin).



Laburpena. Dударik gabe, enpresa multinazionalak, haiei atxikitako start-upak, ugazaben elkarteak eta aholkularitza-bulego handiak dira Europako funtsen protagonista eta onuradun nagusiak. Haien interesen eta egungo agenden arabera dira, zuzen-zuzenean, helburuak, aurrekontua eta jarduteko ikuspegiak. Hori dela eta, bigarren mailako esku-hartzea izango dute —kasurik onenean— krisiaren zartada gogorrenak jasan dituztenek (baserritarrak, ETEak, sektore prekarizatuak, eragile publikoak eta ekonomia solidarioko erakundeak), haien aldeko adierazpenak eta laguntza-aginduak gorabehera.

8. NOLA ERAGINGO DIO GIZARTEAREN GEHIENGOARI?

Bertsio ofiziala: denok irabazle (win-win). Promesaz beterik datoz etengabe aipatzen dizkiguten Europako funtsak: ekonomia berde eta digitaleko hobi berriak eskuratuko omen dituzte Europako enpresek eta, horri esker, handiagoa izango omen da gizarte- eta lurralde-koheretza eta kapitalismo jasangarriko eredu baterantz joko omen dugu. Inor ez omen galtzaile, eta denok irabazle: enplegu gehiago eta duina izango omen dugu (Espainiako Gobernuak dio 800.000 lanpostu sortuko direla), bete egingo omen dira deskarbonizazioaren eta trantsizio energetikoaren helburuak, indartu egingo omen dira zaintza- eta osasun-zerbitzuak, berreskuratu egingo omen da sektore publikoaren garrantzia, ekonomia zirkularra bultzatuko omen da, eta abar.

Bertsio ofizial horrek ez ditu inolaz ere zalantzan jartzen krisi betean dagoen sistema honen oinarriko parametroak; aldiz, ezkutatu egiten ditu Europako laguntza-programaren ezaugarri nagusiak (irabazle gutxi, galtzaile asko). *Teknologikoarekiko fedea* du oinarri bertsio horrek.

Jarraian, planak langileei eragingo dizkien kalteak aipatuko ditugu, laburki, betiere kontuan harturik *NGEU*aren eta hari atxikitako programen ekimen-ugaritasuna. Zerrendak ezin du zehatz-zehatza izan, opakua baita prozesua: ezkutatu egiten dituzte lehentasunezko proiektuak eta aurreikusitako aldaketen noranzkoa eta kronograma. Horregatik, kapitalismo berde eta digitalari buruzko datu jada sistematizatuak hartuko ditugu oinarri gure baieztapenentarako. Pandemiaren zehar, sistema horrek bereganatu du agendaren nagusitasuna, baina aurreko hamarkadatik ari da aplikatzen kapitalismo-mota hori.

Lana. Funtsei atxikitako digitalizazioak balio erantsi handiko enplegu ugari sor lezake Europako enpresek atzitzen dituzten merkatu-hobietan, eta aldi baterako are lanpostu gehiago zuzenean inbertsioei lotutako alorretan (eraikuntza, garraioa, ekipamenduak eta abar).

Gogoan izan, dena den, kapitalismo digitalak enplegua suntsitzen duela, giza lanaren ordeztuak erabiliz. Zenbait zenbatespenen arabera, [egungo enpleguen](#) % 20tik % 70era bitarte suntsituko dira. Krisiaren eta digitalizazioaren aitzakiapen Caixabanketik eta BBVAk iragarritako enplegu-erregulazioeko espedienteak (8.000 eta 3.500 langile kalera, hurrenez hurren) adibide bat baino ez dira, ekonomiaren sektore guztietan gertatuko denaren atariko moduko bat.

Hego Euskal Herrira ere iritsiko da enbata hori. Lehendik ere [egiturazko langabeziak](#) gogor zigortzen zuen gure herria: 2018a baino lehen, hemengoak baino langabezia-tasa handiagoak Greziak, Kroaziak eta Espainiako Estatuak bakarrik zituzten, EBri dagokionez. Pandemia hasi zenetik, berriz, 21.294 langabe gehiago ditugu. Bestalde, ABEEan (ERTE) daude beste 256.793 lagun, eta asko ari dira hedatzen beste EEE uhin batek eragindako lan-gatazkak, batik bat industrian: Tubacex, ITP,

Siemens Gamesa, Aernnova eta abar. Beraz, digitalizazioaren aldeko jarrera irmoak berekin dakarren enplegu-galerak are gehiago zigortuko du Hego Euskal Herria, lehendik ere langabeziak gogor zigortua.



Horrez gain, digitalizazioarekin lotura duten plataformen hedapenak merkantilizatu egingo ditu beste zenbait sektore, eta lan prekarioa zabalduko. Testuinguru horretan, desagertuko egingo da langileekiko enpresen erantzukizuna, eta kutsu antisindikal nabarmena nagusituko da. Eusko Jaurlaritzaren planak jasotzen ditu plataforma horietako batzuk: esate baterako, zaintza-, osasun- eta elikadura-alorretarako EBEPE proposamenetan. Hala, bada, lanaren *uberizazio* prozesu orokorra eta hazkorra hedatuko da, non honelako jarduerak ugalduko baitira: errepikakorrak, aspergarriak, oso gaizki ordainduak, ordutegi jakinik gabeak eta genero-kutsu nabarmenekoak. Europako funtsen ifrentzu gisa aurreikusten den lan-erreformak, berriz, areagotu egingo du merkantilizazio- eta prekarizazio-joera.

Zaharrak berri, beraz: lantegiak irekiko ditu Amazonek Trapagaranen eta Oiartzunen; Uber lanean hasiko da hiriburu batzuetan; *rider* ugari ari dira autonomo faltsu gisa Glovo, Deliveroo eta beste plataforma batzuetan... Zabalik dago prekarizazio are handiagorako bidea. Pandemiaren aurreko datuek diotenez, 2018ko urrian sinatutako kontratu berrietatik % 91 aldi baterakoak izan ziren. Usteko «susperraldi» sasoi hartan, Europako azkeneko postuetan zegoen Hego Euskal Herria: % 25,4 zen kontratuen behin-behinekotasuna. Espainiako Estatu eta Montenegro bakarrik zituen atzetik, eta Europako batezbestekotik oso urrun zegoen (% 13,9).

Azkenik, enplegua baino zentzu zabalago batean aztertzen badugu lana, hona zer dakusagun: austeritate-politikak areagotu egingo dira epe ertainera, eta politika zein egitura publikoen suntsitzea ekarriko du —seguruenik— huts egindako inbertsioengatik korporazioek izandako galeren faktura publikoak. Emaiza: gogortu egingo dira zaintza-lanekiko jokabide eta jarduera atzerakoiak,

patriarkalak eta familiaren apologia egiten dutenak. Hartara, areagotu egingo da sexuaren araberrako lan-banaketa eta batez ere emakumeen bizkarrera joango dira bizitzaren erreprodukzio-lanak, feminismo liberaleraz mozorrotutako diskurtso ustez more eta aurrerakoiak gorabehera.

Sektore publikoaren eta pribatuaren arteko aliantzaren aitzakiapen masiboki azpikontratatuak diren zenbait sektoreen digitalizazioaren ondorioz (egoitzak, etxeko arreta, eguneko zentroak eta abar), murrizketak egingo dira, defizitari eta zorrari aurre egiteko EBren baldintzak direla medio, eta areagotu egingo da emakumeen ordaindu gabeko lana, zeinaren gaur egungo portzentajea Hego Euskal Herriko [BPGaren % 32-34](#) ingurukoa baita. Zerbitzu horiek azpikontratatzearen aldekoak izan dira betidanik hemengo erakunde publikoak, batez ere foru-aldundiak.

Alor publikoa. Bertsio ofiziala aintzat hartuz gero, erakunde publikoek protagonismo politiko eta ekonomiko berreskuratzen duten neoliberalismoaren osteko gizarte batera eramango gaitu *Egonkortasun- eta hazkunde-ituna* aldi baterako eten eta diru publikoa injektatzeak. Oso bestelakoa da egungo egoeran egiten dugun interpretazioa. Gure iritzian, aldatzen ari da gobernuen rola, eta korporazioak atzitzeko beste ahalegin batean buru-belarri ari dira, egungo egoeraren larritasunik bultzaturik. Egun, alor publikoa subjektu estrategiko bihurtu da, bai kapitala erreproduzitzeko (inbertsioen bidez), bai kontsumoari eusteko. Geroz eta handiagoa den prekaritate-mailak arriskuan jartzen du kontsumoa, izan ere.

Inondik ere ez zaigu iruditzen politika-aldaketa denik honako konbinazio hau: erakunde gehiegizko zorpetze-mailaren, aliantza publiko-pribatuen arabera enpresa handiek lehenetsitako proiektuetan egindako inbertsio publiko hala-holakoaren (hidrogeno berdea, parke eoliko flotagarriak, bateriak, adimen artifizialeko zerbitzuak eta abar) eta erreforma neoliberalen artekoa. Aitzitik, sektore publikoak erreskatatu behar izaten ditu —beti bezala— enpresa transnazionalak, batez ere oraingo bezalako une larrietan.

Korporazioen boterea ez da gutxitzen ari, areagotzen baizik. Alegia, sektore pribatuaren interesak ez dira jartzen ari gizarte osoaren zerbitzura, alderantziz baizik: sektore publikoak indartu egin du bere palanka-funtzioa, multinazionalen nagusitasunari eusteko eta hura handitzeko. Honenbestez, Europako funtsek ez dute sustatuko sektore estrategikoen jabetza eta kontrol publikoa, eta korporazioaren ondarea handitzen jarraituko dute; ez dute bultzatuko gizarteko gehiengoaren aldeko erregulaziorik, eta lasatu egingo dituzte kontratazio publikorako baldintzak; ez dituzte trinkotuko gizarte-politikak, austeritatea areagotuko baizik.

Bertsio ofizialek oso urruti garamatza kapitalismoaren erasoaldi horren emaitzak: erakunde publikoek apenas izango duten funtzio sozialerako ahalmenik, eta geroz eta irmoago jardungo dira multinazionalen alde, zeinak areagotzen ari baitira beren jarduera-eremua. Bestalde, sektore publikoak areagotu egingo luke —enpresa digitalekin elkarlanean— segurtasuna eta kontrol soziala bermatzeko jarduera, eta garai bereziki nahasi honetan, *zaintza-kapitalismoa* deritzona indartuko.



Esan dugu lehenago korporazio handiak direla NGEUaren onuradun nagusiak. Bada, bi subjektu ekonomikoren boterea areagotu da krisi- eta pandemia-garai honetan: a) *enpresa digital handiena* (*big tech* deritzenak: Amazon, Alphabet, Facebook, Alibaba eta abar), zeinek berenganatu egin baitute herritarrok eta erakundeek doan lagatzen dizkiegun datuen jabetza (ekonomia digitalaren oinarritzko lehengai), bai eta haiekin lotura duten plataforma-zerbitzuena eta adimen artifizialarena ere; b) *inbertsio-megafuntsak* (Blackrock, Vanguard Group, Blackstone, State Street eta abar), zeinen egungo tamaina inoiz ez bezalakoa baita (adibide bat jartzearren, Blackrocken aktiboak mundu osoko BPGaren % 10aren baliokide dira; bestalde, IBEX-35eko korporazio guztietako akzioduna da megafunts hori). Sektore askotako eta ia enpresa handi guztietako partaide aktiboak dira aipatutako funtsak. «Erortzeko handiegiak» kontzeptuak ez du balio megaenpresa hauentzat: kapitala eta boterea metatzen eta zentralizatzen dute, eta arrisku nabarmena dira demokrariarentzat. NGEUa, berriz, beren estrategietarako tresna gisa erabiliko dute.

Ekologia. Teorian, honetarako sortu zen NGEUa: 2050erako klima aldetik neutroa izango den EBrentzat jotzen laguntzeko. Urte horretarako, zero emisio lortzea da helburua; 2030erako, berriz, % 55 gutxitzea berotegi-efektuko gasen emisioak, % 30era arte igotzea energia berriztagarrien erabilera eta % 32,5 hobetzea energia-eraginkortasuna.

Bertsio ofizialaren arabera, horretarako behar den trantsizio berdea ez litzateke izango irizpide politikoa aldatu izanaren ondorio, baizik eta beharrak bultzatutako erabakia; izan ere, energia fosilen ordezkotza iturri eta sektoreak berriztagarriak behar ditu kapitalismoak, nabarmena baita jatorri fosileko iturrien agortze-prozesua. Hona, beraz, eliteen erronka: emisioak arras murriztea, eta energiaren ekoizpen- eta kontsumo-maila izugarriak bermatzea, hazkunde-dinamikaren oinarri fisikoa izan daitezen. Jakina, hori guztia kapitalismoaren funtsezko parametroak aldatu gabe egin nahi dute. Gainera, ekonomiaren sektore guztiak elektrifikatu behar dira horretarako, baina haietako batzuk erregai fosilen oso mendekoak dira (nekazaritza, garraioa, industria astuna eta abar) eta ez dira oso erraz uztartzen elektrizitatearekin, energia berriztagarrien produktu nagusiarekin, alegia.

Zirkuluaren koadratura gertagaitz horretara iristeko, teknologia jotzen da arrakasta-bide bakartzat, ez *politika*, ez egungo ereduaren egiazko aldaketa. Hala, bada, bere horretan eusten die NGEUak lehentasun hauei:

- *Merkatuak eta balio-kate globalak*, material- eta energia-kontsumitzaile eta-xahutzaile apartak biak ere.
- *Kapitalaren metaketa eta hazkunde ekonomikoa*, ondo jakin arren kapitalismoaren historia osoan kontsumo-energiari loturik egon dela hazkundera.
- *Protagonistak, enpresa handiak*, hau da, klima-aldaketa eragiten ari direnak. Batzuk aipatzearen, hona hiru adibide: EBk Blackrock megafuntsa hautatu du ingurumen-irizpideak ezartzeko aholkularitza nagusi gisa, nahiz eta jatorri fosileko energia-korporazio handienak kontrolatzen dituen eta haietako partaide den; *España puede* planaren oinarria den [IBEX-35](#)eko enpresen emisioak % 22 areagotu ziren 2019an; behin eta berriro ageri dira Eusko Jaurlaritzaren EBE-PEtan eta lehentasuneko proiektuetan Petronor eta [Iberdrola](#), gure planetako tenperatura-igoeran erantzukizun nabarmena duten enpresak biak ere. Otsoak zainduko ote artaldea?
- *Megaproiektuak, korporazioen ohiko tresna*. Inpaktu oso kaltegarria dute proiektu horiek (soziala, politikoa, ekonomikoa, ingurumenekoa, kulturala, generokoa) gizartean eta herritarren artean, ikuspegi kolonialista batetik egiten dira (espoliazioa, desjabetzea) eta jendearen nahitaezko lekualdatze masiboak eragiten dituzte. Immaterialtasuna eta deskarbonizazioa aldarrikatzen dituen bitartean, kapitalismo berde eta digitalak [lur arraroen](#) estraktibismoa (Txinan, Latinoamerikan, Caceresen, Gaztela-Mantxan, Kanarietan...) eta neurrigabeko energia-gastua ere ohiko jarduerak ditu (*streaming*eko zerbitzu digitalek, esate baterako, abiazio zibil guztiak adina energia kontsumitzen dute).

Beraz, helburuak aztertuta, askoz ugariagoak dira itzalak argiak baino. *Hidrogeno berdea* (NGEuren itxaropen nagusia) dugu bertsio ofizial berdeak ezkututzen duenaren adibiderik egokiena: gaur egun, energia osoaren % 0,1 besterik ez du sortzen, oso baxua baita haren energia-eraginkortasuna (% 20-40ko galerak, oro har, iturri primarioa ez da eta), kostu handia du, garraiatzen zaila da, eta errentagarritasun eskasekoa. Hala eta guztiz ere, energia-arazo guztien konponbide bihurtu


nahi digute, inbertsio publiko-pribatua lagun dutela, erreferentzia bakarrak etorkizuneko potentzialitatea eta nekez elektrifika daitezkeen sektoreekiko egokitzapena direla.

Aipatutako elementu guztiak konbinatuta planifikatu da hidrogenoaren estrategia: Europako ekialdean eta Afrikako iparraldean ere adarrak aurreikusten dituen planteamendu orokorra; Espainiako Estatuaren esku-hartze handia, zenbait megaproiekturen bidez (Hidrogenoaren euskal korridorea, Hidrogenoaren Kataluniako harana, beste zenbait ekimen txikiagoren artean); gasaren sektoreko eta energiaren alorreko beste enpresa batzuk protagonista dituen prozesua (Endesa, Enagás, Iberdrola, Petronor, Repsol eta abar). Emaitza, berriz, ez dago batere argi, eta litekeena da beste burbuila bat izatea, eman dioten kutsu maximalista ikusirik.


Dena dela, bete egingo lirateke helburu inplizituak: diru publikoaren injekzioa enpresa handien mesederako erabiliko litzateke (aski da horretarako inbertsio publikoa); azpiegitura gasistikoak beste erabilera batzuetarako egokitu daitezke, erakunde publikoen laguntza iraunkorra jasoko den etorkizun baterako eta, gainera, anbigutasuna eta opakutasuna direla medio, *hidrogeno garbitzat* aurkeztuko lirateke uraren elektrolisiz ekoizten den energia ez ezik jatorri fosileko hidrogeno urdina, grisa eta turkesa ere. Nahiko garbi daude, beraz, NGEUaren lehentasunak, inondik ere bat ez datozenak trantsizio ekologiko batek eta ekonomiaren egiazko eraldaketa batek eskatzen dutenarekin.

Laburpena. NGEUaren promesei kontrajarririk, errealitateak bestelako tankera hartzen du: kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazka geroz eta gogorragoaren beste etapa batena, hain zuzen ere. NGEUak ez du ez menderatuko ez geldiaraziko egungo krisi hau: Europako enpresa handiei mundu osoan urritzen ari diren irabazien zati handiago bat bermatzen saiatuko da, eta kito. Horretarako, baina, enplegua eta politika publikoak suntsitu beharko ditu, ongizate orokorren oinarriak biak ere, zalantzan jarri gabe sistemaren parametroak: kapital-metaketa, etengabeko kontsumoa, megaproiektuen eraikuntza eta alor publikoaren suntsitzea. Hona NGEUak sustatzen duen kapitalismo berde eta digitalaren ondorioetako batzuk: enplegu gutxiago, eta prekarizazio-maila handiagoa; austeritatearen areagotzea, metatutako zorra, aurreikusten diren aldaketak eta lehentasunezko inbertsioen zalantzako emaitzak direla medio; gizartearen kontrol zorrotzagoa, digitalizazioaren eraginez; enpresa handien, megafuntsen eta *big tech*en botere geroz eta handiagoa, demokraziaren kalterako, eta egungo estraktibismoaren eta finantziarizazioaren jarraipena.


9. ZER TRANTSIZIO-EREDU ALTERNATIBO BULTZA DEZAKEGU?




1. Fiskalitate progresiboa eta ekologikoa.




2. Europako funtsen herri-auditoretza.




3. Alor estrategiko guztien jabetza eta kontrol publikoa, trantsizio bidezkoa eta ekologikoa lortzeko.



4. Lurraldeka antolatu eta birkokatu egin behar da euskal ekonomia, eta batez ere ekonomia solidarioari, elikagaien burujabetzari, ETEei eta autonomoei lagundu.



5. Enpresa transnazionalak erregulatzea, eta gizarte-, lan-, ingurumen-, energia- eta zaintza-irizpideak ezartzea.



6. Burujabetza, trantsizioa bidezkoa eta ekologikoa izan dadin.

Une historiko bereziki nahasia egokitu zaigu, non areagotzen ari baita gure bizitzak antolatzeko ikuspegi desberdinen arteko gatazka. NGEUak bultzatzen duen kapitalismo berde eta digitala dugu aukeretako bat, baina inondik ere ez bakarra. Ezin kaltegarriagoak izan daitezke plan horren ondorioak langileentzat eta munduarentzat; beraz, beste bide batzuk jorratzen ahalegindu behar dugu. *Euskal Herriak Kapitalari Planto* dioen legez, «behar dugu, eta ahal dugu».

Hona, bada, gure proposamenak, kapitalismoa testuinguru orokor berri batera egokitzeko plan soil baten ordeztu (hori da NGEUak, *Euskadi Next 21-26k* eta *Nafarroa Suspertu 23-26k* proposatzen dutena) *ekonomiaren benetako eraldatzea* aldarrikatzen dutenak. Trantsizio ekologiko baten beharra eta digitalizazioaren ondorioei buruzko eztabaida sozial sakona aintzat hartu behar ditu

proposatzen dugun eraldatze-prozesuak. Oinarrizko jardunbide gisa, berriz, *burujabetzak* sendotzea proposatzen dugu (burujabetza politikoa, energetikoa, digitala, elikagaien gainekoa, feminista, ekologista eta antikoloniala), ikuspegi ireki, herrikoi eta internazionalista batetik.

Irizpide hori eta 2020ko abenduan argitaratutako agiria oinarri ditugula, hona ekonomia eraldatzeko gure proposamenak:

- 1. Fiskalitate progresiboa eta ekologikoa.** Behar dugun tresna ez da NGEUak proposatzen dituguna (gehiegizko zorpetze-maila, sektore publikoaren eta pribatuaren arteko aliantzak eta kontrarreforma soziala). Hego Euskal Herriko fiskalitatea Europako batezbestekoaren mailaraino igoko balitz, baliabide ugari izango genuke behar diren trantsizioei ekiteko. Urtebetere buruan, diru gehiago bilduko litzateke fiskalitate berriari esker EAEko eta Nafarroako gobernuek NGEU bidez jasoko luketena baino. Oinarri hauek izan behar ditu aldarrikatzen dugun fiskalitate berriak: sozietateen gaineko zerga, ondarearen eta aberastasun handien gaineko zerga (berria eta bidezkoa), PFEZren goiko mailak eta kontsumo antiekologikoaren gaineko zerga (diesela, hondakinak, plastikoak eta abar).
- 2. Europako funtsen herri-auditoretza.** Martxan dira jada NGEUa eta hari atxikitako programak, baina Hego Euskal Herrian zehazteke daude oraindik. Opakutasuna, ezkutukeria eta enpresa handien aldeko jarrera izan dituzte ezaugarri planaz arduratzen diren erakundeek. Egoera hori aldarazteko eta eztabaida demokratikoa sustatzeko, hau proposatzen dugu: herri-auditoretzako prozesuak bultzatzea, jakiteko zer proiekturi eman zaien lehentasuna eta zenbateko zorra sortu den (2008an abiarazitako ziklotik), zer justifikazio duten proiektuek eta zorrak, eta zer inpaktu eragingo dituzten. Ikuskatu behar da, halaber, aurkeztutako helburuen betetze-maila, eta proiektuek politika publikoetan eta gizarteko gehiengoaren ongizatean duten eragina. Bestalde, ekonomia eraldatzeko planari buruz eztabaidatzeko eta proposamenak egiteko guneak sortu behar lirateke Hego Euskal Herrian. Hartara, NGEUaren ordezkotako alternatiba fiskala aurkezteaz gain, planaren kontrol soziala bultzatuko genuke, gure lurralde historikoetan haren aplikazioak aurrera egin ahala.
- 3. Alor estrategiko guztien jabetza eta kontrol publikoa, trantsizio bidezkoa eta ekologikoa lortzeko.** «Ahalik eta gehiena irabazi» irizpidearen gainetik ongizate kolektiboa eta gizartearen partaidetza lehentasun ditugula jo behar dugu gizarte- eta lurralde-koheziarantz, pandemia-garai honetan ondo asko ikasi dugunez. Ezin da lortu helburu kolektiborik gutxi batzuen interesak bakarrik zainduz. Horregatik, jabetza publikokoak izan behar dute ekonomia berriaren ardatzek, eta kudeaketa-formula berriak aplikatu behar dira, sektore publikoaren eta zenbait gizarte-erakunderen arteko aliantzak oinarri direla. Beraz, desprivatizatu eta desmerkantilizatu egin behar dira Hego Euskal Herriko energia, datuak, telekomunikazioak eta adimen artifizialeko zerbitzuak. Irizpide hori bera erabili behar da gure bizitzarako ezinbestekoak ditugun sektore guztietan: osasuna, hezkuntza, zaintza, eli-

kagaiak eta ondasun naturalak. Funtsezkoa da, bestalde, banku publiko bat sortzea eta banka sozial etikoaren jardunak sendotzea, ekonomia eraldatzeko prozesu demokrati-koari laguntzeko. Azkenik, eztabaida sakona bultzatu behar da gizartean trantsiziotik kanpo geratu behar duten sektore ekonomikoei buruz, eta lagundu egin behar zaie haietan diharduten langileei, berariazko estrategiak sortuz.

- 4. Lurraldeka antolatu eta birkokatu egin behar da euskal ekonomia, eta batez ere ekonomia solidarioari, elikagaien burujabetzari, ETEei eta autonomoei lagundu.** Balio-kate globalen ezaugarriei kontrajarrik (ahulezia, epe laburrerako jarduna, iraunkortasunik eza eta zentralizazioa), hau aldarrikatzen dugu: tokian tokiko eremua izatea ekonomiaren gune estrategikoa, eta han asetzea bizitzaren beharrak eta zikloak, irizpide ekologiko, demokratiko eta berdintasunezkoak erabiliz. Hartara, prozesuaren protagonistak ez dira enpresa transnazionalak izango, baizik eta goian aipatu ditugun eragileak, bizitzari eusteko funtsezkoak direla aski frogatu dutenak. Proposatzen dugu, halaber, bide horretatik jotzea politika publikoek, beharrei eta aukerei buruzko gogoeta kolektiboa eginda, demokratikoki antolatutako planei jarraikiz. Planifikatuta dauden eta martxan diren megaproiektu guztiak bertan behera uztea ere aldarrikatzen dugu, gizarteari kaltea besterik ez baitiote ekartzen.

- 5. Enpresa transnazionalak erregulatzea, eta gizarte-, lan-, ingurumen-, energia- eta zaintza-irizpideak ezartzea.** Helburu orokor, taxonomia eta *do no harm* gisako



printzipio generikoez landa, trantsizio bidezko eta ekologiko baterako lehentasunezko proiektuek zenbait irizpide, adierazle eta neurri zehatz izan behar dituzte, ekimen kaltegarriak saihestu eta, aitzitik, jorratu beharreko bideak aurkitzeko. Horrela, argitu egingo lirateke helburuak eta prozesuak, eta saihestu NGEUan hain zabalduak dauden berde-, more- edo auzolan-tankerako egokitzapen hutsak. Proposatzen dugu, honenbestez, *Enpresa transnazionalen eta giza eskubideen zentro* bana sortzea EAEn eta Nafarroan, Hego Euskal Herrian diharduten enpresa nazioartekotuen erregulazioaz, jarraipenaz, kontuez eta zehazpenez arduratzen diren berariazko egiturak izan daitezen.

- 6. Burujabetza, trantsizioa bidezkoa eta ekologikoa izan dadin.** Hego Euskal Herriko langileek tresnak behar dituzte beren etorkizuna zehaztu eta kapitalismo berde digitalaren ekinari aurre egiteko. Lagungarri izan daiteke lan-harremanen bertako eremua eta pentzio-sistema propioa edukitzea, esku artean dugun eginkizunerako testuinguru demokrati-koagoa eta egokiagoa sortzeko. Era berean, zalantzan jarri behar dira Europar Batasunaren politiken (NGEUa barne) eta egitura instituzionalaren joera neoliberalak, zentralista eta korporazioen aldekoa. Herriek eta estatuek ekonomiaren egiazko eraldatzeari ekiteko dituzten aukerak mugatu egiten ditu egitura horrek; beraz, gure kontinentea antolatzeke beste formula batzuk ere bilatu behar ditugu.

ESKİLLERİN
KARİTALARI
PLANTO!